

Informazio eskaerak eta kexa, iradokizun eta erreklamazioak aurkezteko lekua eta ordutegia

Markina-Xemeingo Udala
Goiko Portala, 3
P.k.: 48270

Tel. 946167454
Fax: 946167671
Web: www.markina-xemein.com
udala@markina-xemein.com
Astelehenetik barikura, 09:00 – 13:30

Iradokizun, kexa eta erreklamazio guztiak gehienez jota hilabetean erantzungo dira (oporraldiak salbu).



MARKINA-XEMEIN
UDALA



ZERBITZU-KARTA
2009-2011

MARKINA-XEMEINGO
UDALA

1 Markina-Xemeingo Udalaren zerbitzu-karta Aurkezpena eta helburuak

Markina-Xemeingo Udalak herritarrek hurren daukien administrazio publikoa da, izan, eta markina-xemeindarrei emoten deusezan zerbitzu guztien kalitatea hobetzea dau lehentasunetako bat. Zerbitzu-karta honen bitartez Udalak, eskaintzen dituen hiru zerbitzuak aurkezteaz gain, euron inguruan herritarren aurrean hartzen dituen konpromisoak sinatzen ditu. Zerbitzu-karta honen indarraldia: 2009/2011. Zerbitzu-karta osorik eskuratu nahi izan ezker, jo Markina-Xemeingo Udalaren web-orrira: www.markina-xemein.com.

2 Karta honetan ziurtatutako udal zerbitzuak

- **Lizentziak:** obra txikiak (proiektu bakoak), obra handiak, bizitzeko baimenak, lur-zatiketak, jarduerak (sailkatuak eta sailkatu bakoak) eta eskualdaketak.
- **Obra eta zerbitzuak:** herriko kale eta udal eraikinen garbiketa, hiri-tresneria eta udal eraikinen mantentze-lanak (mantentze-lan zuzentzaileak).
- **Kultur eta kirol zerbitzuak:** dirulaguntza ohikoak eta kultur eta kirol ekintzen koordinazioa, argitalpena eta jarraipena.

3 Eskaintako kalitate-konpromisoak, jarraipen-adierazleak eta kalitatearen ebaluazioa

- 3.1 Interesatuak, Markina-Xemeingo udaletxean txosten eskaria eta dokumentazio guztia entregatu eta 20 egun naturaleko epean txosten teknikoak burutua izango dau. Konpromiso hau Udaleko lizentzia espediente bakoetxeko kontrolatuko da.
- 3.2 Markina-Xemeingo udaletxean obra lizentziak 40 laneguneko epean erantzungo dira, beti be interesatuak beharrezkoa dan azken dokumentazioa udaletxean entregatzen dauanetik zenbatzen hasita (oporraldiak salbu). Konpromiso hau obra-lizentzia eskaera bakoetxeko kontrolatuko da.
- 3.3 Markina-Xemeingo udaletxean obra txikietarako lizentziak astebeteko epean erantzungo dira, beti be interesatuak beharrezkoa dan azken dokumentazioa udaletxean entregatzen dauanetik zenbatzen hasita (oporraldiak salbu). Konpromiso hau hilabetero eta espediente bakoetxeko kontrolatuko da.
- 3.4 Markina-Xemeingo kale guztietan garbiketa-zerbitzua egongo da gitxienez astean bitan. Hau egiaztatzeke, herriko bost puntuetako iragarki tauletan kaleak zein egu-netan garbitu diran jasoko da idatziz. Konpromiso hau hileroko, hilaren lehenengo astean kontrolatuko da.
- 3.5 Markina-Xemeingo mantentze-lan zuzentzaileak astebeteko epean burutuko dira erabakitakoan zenbatzen hasita. Konpromiso hau barikueroko kontrolatuko da.
- 3.6 Markina-Xemeingo Udalak aurrekontua indarrean sartu eta 15 lan-eguneko epean banatuko ditu ohiko dirulaguntzak. Konpromiso hau urtero martxoan egiaztatuko da. Konpromiso hau urtean behin (martxoan) kontrolatuko da.
- 3.7 Markina-Xemeingo Udalak web orrialdeko informazioa egunero barrituko dau (oporraldiak salbu). Hau egiaztatzeke, hileroko aldaketa-erregistro bat eroango dau. Konpromisoa hileroko, hilaren azkenean kontrolatuko da.
- 3.8 Markina-Xemeingo Udalak bere gain dagozan instalazioetako garbitasunaren inguruko asebetetasun-maila gitxienez 7koa izatea ziurtatzen dau. Horretarako, instalazioen arduradunei inkesta bat pasatuko deutse urtean bitan. Konpromiso hau urtean bi biderrez, apirilean eta azaroan, kontrolatuko da.

4 Konpromisoen betetzea ezagutzera emoteko bideak

Urtean behin, Udalak karta honen bidez hartzen dituen konpromisoen betetzemila ezagutzera emongo dau ondorengo bitartekoak erabilita:

- 4.1 Markina-Xemeingo Udalaren web gunea.
- 4.2 Udaletxeko iragarki taula.
- 4.3 HITZA.

